

# 2013ko Aurrekontu Proiektua

**Gastu arruntak, inbertsioak eta diru-laguntzak murriztu dira, Udalaren eskumeneko eremu sozialei dagozkienak izan ezik Aurrekontuan berriro lehentasuna izango dute gizarte-politikek, oinarritzko zerbitzuen kalitatea mantenduko da eta ekonomia suspertzen jarraituko du**

**Aurrekontu orokorra (4 erakunde autonomoren gastua barne) 99,3 milioi eurokoa da, 2012. urtean baino %5,8 gutxiago**


Udalak 2013. urterako duen aurrekontu orokorra, erakunde autonomoak sartuta, 99,3 milioi eurokoa da (iaz baino 6,1 milioi euro gutxiago; hots, %5,8). Aurrekontuan lehentasuna eman zaie, besteak beste, honako hauei: krisiaren testuinguru honetan egoera ahulenean aurkitzen diren taldeak eta pertsonak artatzea; kalitatezko oinarritzko zerbitzuei eustea, gure udalerraren bereizgarri baitira; eta Getxoko jarduera, hazkundea eta bilakaera bultzatzen jarraitzea. Udalak, 2013. urteari begira, estrategia gisa, gastu arrunta murrizten jarraituko du; era horretan, hainbat ekimen murriztu edo kendu egin dira. Diru-laguntza eta laguntzei dagokienez, ez dira murriztuko Udalaren eskumenekoak diren gizarte-politikei

dagozkien diru-laguntzak. Halaber, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuei nahiz familiei zuzendutako neurri fiskalak hartu ditu (laguntzak eta hobariak) Udalak, eta etxebizitza libreko partzelak salduko ditu, proiektu estrategikoetan ahalegin inbertitzailea arintze aldera (esate baterako, desjabetzeak Gobela ibaia bideratzearen).


*"Familia eta negozio gehienetan gertatzen den moduan, krisi ekonomikoak Udalaren aurrekontuak markatu ditu, 2013. urterako", azaldu du Imanol Landa Getxoko Alkateak. "Beste urte batez, udal zergak eta tasak izoztuta, Udalkutxari egin beharreko itzulketei aurre egin behar zaie, eta beste erakunde batzuetatik jasotzen diren diru-laguntzek ere murrizketak izan dituzte. Beraz, ho-*

*rren guztiaren ondorioz, ekonomian eta finantza-arloan dugun ahalmena gutxitu egiten da, jakina diru-sarrerak ere gutxitzeagatik". Horri gehitu behar zaizkio KPI-ren ondorioak, Estatuko Gobernuak onartutako BE-Zaren igoera, elektrizitatearen kostua izugarri igo-tzea nahiz defizita kontrolatzeko neurriak bete eta aurrekontuaren egonkortasuna bermatu beharra. Gainera, krisia dela-eta, premiak areagotu egiten dira, bereziki gizarte-politiken eremuan, "eta horrek izango du guretzat lehentasuna, gure udalerriko ekonomia berrindartzea eta udalerrira eraldatzea bultzatzen jarraitzearekin batera; izan ere, gure udalerrira hobetzen jarraitzeko ardatz estrategikoak direla uste dugu, ezbairik gabe".*

**Gastuaren Banaketa \***



**Udal Erakundearen sarreren bilakaera**



*Etxebizitza libreko partzelak salduko dira, proiektu estrategikoetan ahalegin inbertitzailea arintze aldera (esate baterako, desjabetzeak Gobela ibaia bideratzearen), gastu arrunta zigortu gabe.*

## 2013ko jardunbide-eremuak

Udal aurrekontuak 7 jardunbide-arlo handiren gainean garatzen du 2012-2015eko Legegintzaldi Plana, arlo bakoitzari dagokion aurrekontuko partida esleituz.

KONTZEPTUA	Euroak	
	GASTUA GUZTIRA	GASTUA PERTSONAKO
1. Gizarte Politikak (Kohesio soziala)	13.952.369	220
2. Getxoz gozatu: Euskera, kultura, astialdia, kirola	17.719.292	172
3. Jarduera ekonomikoaren sustapena	2.297.799	28
4. Kalitatezko oinarritzko zerbitzuak	34.947.996	433
5. Hiritarrekiko komunikazioa, parte-hartzea eta gardentasuna	1.969.305	24
6. Getxoren berriztatzea (proiektu estrategikoak)	7.476.387	93
7. Zorroztasun ekonomikoa eta kudeaketan eraginkortasuna	18.947.981	235
Zehaztu gabeko gastuak	2.000.000	25
<b>GUZTIRA</b>	<b>99.311.129</b>	<b>1.230</b>

# Hona hemen partidarik aipagarrienak:

## 1. GIZARTE POLITIKAK (KOHESIO SOZIALA)

Euro

Kontzeptua	Gastua guztira	Gastua pertsonako
Gure adinekoak eta mendeko pertsonak artatzea:		
Udal-egoitza	5.421.321	67
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	1.900.000	23
Zahar-etxeak	212.500	3
Pertsonentzako laguntzak	1.445.000	18
Hezkuntza	1.360.820	17

Kontzeptua	Gastua guztira	Gastua pertsonako
Garapenerako lankidetzak	498.895	6
Boluntariotza	445.083	5
Pertsonekin eta familiekin esku hartzea	391.750	5
Drogazaletasuna prebenitzea	242.630	3
Berdintasuna	219.238	3
Kultur artekotasuna eta inmigrazioa	143.220	2

## 2. GETXOZ GOZATU: EUSKERA, KULTURA, ASTIALDIA, KIROLA

Euro

Kontzeptua	Gastua guztira	Gastua pertsonako
Kirola	7.626.352	94
Kultur jarduera	5.014.487	62
Musika Eskola	2.383.758	29
Euskara	2.263.321	28
Ingurumena babestea	718.469	9
Aisia-jarduerak, gazteria eta jaiak	682.138	8

## 5. HIRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA GARDENTASUNA

Euro

Kontzeptua	Gastua guztira	Gastua pertsonako
Herritarrak Artatzeko Bulegoak	907.184	11
Herritarren parte-hartzea	350.000	4
Herritarrekiko komunikazioa		
Getxoherri	208.000	
Kirol Arreta Zerbitzua	70.000	
Getxo Irratiaren mantenu gastuak	10.000	
	290.062	3

## 3. JARDUERA EKONOMIKOAREN SUSTAPENA

Euro

Kontzeptua	Gastua guztira	Gastua pertsonako
Enpresentzako laguntza (Merkataritza, ostalaritza, ekintzaileak, izaera sozialeko enpresa-ekimenak, e.a.)	1.659.381	22
Turismoa sustatzea	651.925	8

## 6. GETXOREN BERRIZTATZEA (PROIEKTU ESTRATEGIKOAK)

Euro

Kontzeptua	Gastua guztira	Gastua pertsonako
Getxo Antzokia	1.900.000	24
Areeta/Erromoko Geltoki plaza	220.000	3
Gobela ibai egokitzea (URA)	1.501.000	19
Hiri Antolamendurako Plan Nagusia	300.000	4

## 4. KALITATEZKO OINARRIZKO ZERBITZUAK

Euro

Kontzeptua	Gastua guztira	Gastua pertsonako
Bide-garbiketa eta zaborrak biltzea	12.407.815	154
Getxo, hiri segurua	8.793.284	109
Ur-horniduran eraginkortasuna	4.305.448	53
Kale eta espaloien mantentze-lanak	4.453.804	55
Argiteria publikoa	1.933.130	24
Parkeen eta berdeguneen kalitatea	2.482.363	31
Hilerria	414.192	5
Osasun publikoa eta kontsumo arduratsua	157.960	2

## 7. ZORROZTASUN EKONOMIKOA ETA KUDEAKETAN ERAGINKORTASUNA

Euro

Kontzeptua	Gastua guztira	Gastua pertsonako
Udal eraikinen mantentze-lanak eta parke mugikorra	4.149.825	51
Zorpetzea	3.807.644	47
Langileen kudeaketa eta kalitatea	2.372.014	29
Zerga-kudeaketa, kontabilitatea eta diruzaintza	2.617.813	32
Kontratazioa, idazkaritza eta administrazio orokorra	2.647.303	33
Modernizazio teknologikoa	1.339.634	17

# 2013ko Aurrekontuaren lehentasunak:

## Gizarte politika aurreratuak

2013an Getxoko Udalak 14 milioi euro zuzenduko ditu gizarte-politika aurreratuak martxan jartzera eta pertsona eta kolektibo kaltetuenak artatzera. Zenbateko horretatik, diru-kopuru garrantzitsuenak, 7,5 milioi euro, edadetuk eta mendekotasun egoeran daudenak artatzeko izango da, besteak beste, hurrengo bidez: Udal Erresidentzia, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua, Nagusien Etxeak, zaintzaileei laguntzeko Zerbitzua (Zainduz programa...). Hezkuntzari dagokion Udalaren eskaintzan udalerriko ikastetxeak era egokian mantentzeaz gain honako

hauek ere egongo dira: Kualifikazio Profesionalaren Programen finantziaketa, gazteek gelak ikasteko erabili ahal izatea eta udalerriko ikastetxeetako eskola-ordutegitik kanpoko jarduerak (igeriketa ikastaroak, antzerkia, ibilbide ekologikoak, euskal dantza, euskal kanta, bertsolaritza...). Emakumeen eta Gizonezkoen arteko Berdintasuneko Zerbitzuak berdintasuneko gizarte ahalbidetzen duten eta emakumeek gai publikoetan parte hartzeko bideak sustatzen dituzten politikak bultzatzen ditu hainbat programaren bitartez, esate baterako,

Jabekuntza Eskola, Sexu Informazio Bulegoa, berdintasunari buruzko eta indarkeria prebenitzeko sentsibilizazio jarduerak ikastetxeetan, emakumeen elkarteentzako diru-laguntzak eta lokalak uztea... Aurrekontuaren beste lehentasuneko helburuetako bat gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen arreta berezia eskaintzea da. Aurten Getxok 1,5 milioi euro zuzenduko ditu aipatutako pertsona horiek bergizarteratzeko, oinarrizko beharren gastuetarako diru-laguntzen bitartez (etxebizitza, elikagaiak, jantziak eta zapatak...), eta jan-

toki sozialaren zerbitzuaren, gizarteko esku-hartzean laguntzeko programen eta neguan etxerik gabeko pertsonentzako urgentziatzeko ostatuaren bidez ere. Nazioarteko lankidetzako proiektuetarako diru-ekarpenak, boluntarioen elkartei laguntzea, droga-mendekotasunak prebenitzea, Getxo kulturen artekotasuneko hiria sustatzeko lana edo hezkuntzako eta/edo psikosozialeko programak dira Udala aurrera eramaten ari den politika sozialen beste ardatz nabarmenetako batzuk.

## Ekonomiaren dinamizatzea

Ekitaldi honetako aurrekontuan, gure pertsonak profesionalizatzearen aldeko apustua egin da, gure enpresa-ehuna indartzea (merkataritza, ostalaritza, zerbitzu-enpresak, e.a.) eta enpresaren eremuan kudeaketa-arlo ezberdinetako aholkularitza eskaintzea. Enfasi berezia emango zaio trebatutako profesionalen eta proiektu berriak sortzeko lidergoan esperientzia dutenek

jabekuntza hartzeari; era horretan, haien gaitasuna bultzatuko da lehengo enpresetan aldaketarako agente gisa. Halaber, mundu globalizatuan lan egiteko gaitasuna duten enpresa berriak sortzea eta garatzea bultzatuko da, udalerriko garapen ekonomiko iraunkorra bultzatuz. Horiek lehiatzeko giltzarria berrikuntza izango da. Bestalde, duela zenbait urtez geroz-

tik, ohikoa da laugarren sektoreko enprekin egiten den lankidetzak, eta horrek Ekonomia Sustatzeko Sailaren jardueraren funtsezko ardatzetariko bat izaten jarraituko du. Modu horretan, sinergia berriak bilatzeaz gain, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten taldeak aktibatzea errazten duten ekimenak abian jartzeko parte hartuko da.

Era berean, Turismoa izango da lehentasuneko jardueraren eremua, gure ekonomiaren beste motore bat eta enplegua eta diru-sarrerak sortzeko iturri garrantzitsua izatea nahi baita. Horretarako, gure udalerrira sustatuko da eta sektoreko enpresei laguntza emango zaie kalitatearen kudeaketa bilatzen, gure bisitarien esperientzia eta asebetetzea hobetzearren.

# Non izango du eragina udal-aurrekontuaren murrizketak?

Krisi ekonomikoa medio 2013. urterako aurrekontua murriztu egin da, eta, era horretan, honako hauek bezalako zenbait ekimen kendu edo murriztu egin behar izan dira:

#### Kendutakoak:

- Cinegourland.
- Getxo Sea Week.
- San Inazio jaietako su artifizialak.
- Hezkuntza indartzeko udako ikastaroak.
- Izotz gaineko patinaje-pista Getxolondian.

#### Jardueren kostua murriztea:

- Jaiak.
- Kultur Etxearen jarduerak (musika jaialdien kostua etab.).
- Elkarreentzako diru-laguntzak (Udalaren eskumeneko gizarte-zerbitzuekin lotutakoak izan ezik).
- Getxophoto.
- Euskal Kulturaren Jardunaldiak.
- Ludoteka (aparteko jardueren murrizketa, ordutegia mantenduarren).
- Udal liburuxkak eta aldizkariak.

- Kultur arteko eta inmigrazio-arloko jarduerak (Eusko Jaurlaritzak eman beharreko diru-laguntzaren arabera).
- Sasoiko loreak.

#### Gauzatzeko denboraren luzapena

- Getxo Antzokia.
- Romo Kultur Etxea.
- Modu horretan, ekitaldiari aurre egin ahal izango zaio berriro ere zorpetzera jo gabe, eta gastu arrunta murrizteko premia gutxituko da.

## Sarrerak:

Hauek dira 2013. ekitaldirako aurrekontuko sarrerak, sailkapen ekonomikoaren arabera:

KONTZEPTUA	Mila euro	
	2013	2012
<b>ZUZENKO ZERGAK</b>	<b>22.043</b>	<b>21.694</b>
OHZ	14.388	14.208
Ibilgailuak	4.601	4.151
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga (Gainbalioa)	1.980	2.126
JEZ	1.074	1.209

<b>ZEHARKAKO ZERGAK</b>	<b>1.288</b>	<b>1.268</b>
EIOZ	1.288	1.268

<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK</b>	<b>15.317</b>	<b>15.667</b>
Ura eta estolderia	4.028	4.168
Zaborra	3.980	4.117
Isunak	2.100	2.047
TAO	1.349	1.351
Bestelakoak	3.860	3.984

<b>DIRU-LAGUNTZAK</b>	<b>43.481</b>	<b>48.614</b>
BFA: Udalkutxa	39.621	44.411
BFA: Gizartekutxa	700	750
BFA: Etxez etxeko laguntza	275	300
BFA: Hondartzen garbiketa	364	400
EJ: Gizarte-larrialdia	850	700
EJ: LHI	533	561
Bestelakoak	1.138	1.492

<b>ONDARE-SARRERAK</b>	<b>1.414</b>	<b>1.012</b>
Gordailuen interesak	1.351	929
Bestelakoak	63	83

<b>INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA</b>	<b>6.051</b>	<b>5.328</b>
Partzelen salmenta	6.051	5.328

<b>FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKETA</b>	<b>150</b>	<b>150</b>
-----------------------------------	------------	------------

<b>FINANTZA-PASIBOEN ALDAKETA</b>	<b>-</b>	<b>1.884</b>
<b>GUZTIRA, UDALAREN SARRERAK</b>	<b>89.760</b>	<b>95.618</b>
GETXO KIROLAK-EN SARRERAK	3.977	3.974
UDAL-EGOITZAREN SARRERAK	3.381	3.263
MUSIKA ESKOLAREN SARRERAK	825	944
KULTUR ETXEAREN SARRERAK	1.368	1.624
<b>SARRERAK</b>	<b>99.311</b>	<b>105.423</b>

## Nabarmendu behar da:

Zerga, tasa eta bestelako sarreren gaineko diru-sarrerak bere horretan mantenduko dira; hau da, 38,6 milioi eurokoak izango dira, udal zerga eta tasa gehienak izoztearen ondorioz.

Jaso beharreko diru-laguntzak murriztu egingo dira; hots, 5,1 milioi euro gutxiago. Udalkutxaren murrizketa aipatu behar da (Udalak duen parte-hartzea itunpeko zergen bilketan), 4,8 milioi euro, aurreko ekitaldietako likidazio negatiboari aurre egin behar izategatik.

6 milioi euro lortzea aurreikusten da, etxebizitza libreak eraikitzen zuzendutako hainbat partzela saltzearen ondorioz.



# Pizgarriak eta laguntza fiskalak jarduera ekonomikoa sustatzeko:

## Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)

- Zergaren exentzioa jardueraren lehen 2 urtetan.
- Kuotaren gaineko %50era bitarteko hobaria enplegua sortzeagatik.
- Kuotak zatitzeko aukera ekitaldi berean jarduerari alta eta baja emanez gero.

## Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) eta Obra Tasa

- %2ko karga-tasa murriztua babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzekeo sustapen pribatuko erregimenean.
- Kuotaren gaineko %95era bitarteko hobaria interes bereziko edo udal-erabilerako obretan, egoera sozialak, kulturalak edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeagatik edo ostatu iragankorra eskaintzeagatik.
- Kuotaren gaineko %90era bitarteko hobaria oztopo arkitektonikoak kentzeko lanetarako.
- Kuotaren gaineko %90era bitarteko hobaria eguzki-

energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoaren sistemak dituzten obretarako.

- Kuotaren gaineko %40era bitarteko hobaria fatxadak edertzeko lanetarako.

## Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)

- %90era bitarteko hobaria OHZ zergan, hirigintza, eraikuntza eta higiezinaren sustapeneko enpresentzat.

## Zabor-bilketaren eta estolderiaren gaineko tasak

- %50era bitarteko hobaria jardueraren lehen urtean.

## Zerga-zorren ordainketa

- Zerga-zorren ordainketa atzeratzea interesik gabe, ordainketa nahierara egiteko irudia erabiliaz.
- Administrazio-bidean berrikustera sartzeko erraztasunak, zerga-zorren exekuzioa etenda. Aldez aurretik eskaera eginda, 5.000 eurotik beherako

zorrak eten ahal izango dira, berraztertzekeo errekursoaren kasuan bermerik eman beharrik gabe.

- Zerga-zorrak sei hilabete baino gutxiagoko denboraldian atzeratu edo zatituz gero, bermea jartzetik libre geratzen dira.

- 100.000 eurotik gorako zerga-zorren atzerapenak emateko gehieneko denboraldia gehitzea, 18 hilabetetik 36 hilabetera.

## Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

- Erabilera komertzial edo industrialeko ibilgailuen (kamioiak, autobusak eta traktoreak) zerga izoztea.
- %75eko hobaria motore elektrikoak duten ibilgailuentzat.

## Establezimenduak irekitzeko lizentziaren bidezko tasa

- %50eko hobaria jardueraren lehen urtean.

# Laguntza fiskalak kaltetuentzat edo interes sozialeko sektoreentzat:

Jarraian adierazitako ordenantza fiskalen barruko hoberi eta exentzioez gain, Udalak, 2013. urteari begira, laguntzen ildo berria ezarri du OHZ ordaintzeko, sektore kaltetuenentzat. Horretarako, 250.000 euroko aurrekontua jarri du, eta laguntza horiek eskuratzeko lehentasuna izango dute udalerriko familia ugariak; izan ere, kalkulatzeko kontuan hartuko da bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideen kopurua.

## Familia ugariak

%60era bitarteko hobaria OHZren kuota osoaren gainean; %95era bitartekoa Getxo Kirolak-en tasetan; %50era bitartekoa estolderia-tasetan, Udal Musika Eskolan eta administrazio-dokumentuak egiterakoan; eta %40era bitarteko hobaria udal ludoteka-zerbitzua emateko tasan.

## Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)

%50eko hobaria BOE etxebizitzaren kuotan, bost urteko denboraldirako.

%50eko hobaria ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotan, "Etxebizitza hutsa programaren" barruan lagapenerako diren kasuan.

## Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)

Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako eta gutxitu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarte eta fundazioentzako exentzioa.

# Zorpetzea:

Mila eurotan

Erakundea	Formalizatutako urtea	Interes tasa	Saldoa 1.1.2013	Amortizazioa 2013	Saldoa 31.12.2013
BBK	2000	Euribor+0,1	865	(288)	577
BBK	2002	Euribor+0,11	9.796	(980)	8.816
BBV	2002	Euribor+0,09	5.927	(593)	5.334
BBK	2004	Euribor+0,1	9.231	(769)	8.462
Caja Madrid	2005	Euribor+0,07	5.742	(679)	5.063
<b>GUZTIRA</b>			<b>31.561</b>	<b>(3.309)</b>	<b>28.252</b>

Mailegu horiek aurreko ekitaldietan sortu ziren, eta inbertsio-proiektuetan aurrekontuan zorpetzearen bidez finantzatu ziren. Maileguak Udal Diruzaintzan sartu diren bitartean, horiekin lotutako inbertsio batzuk luzatu egin dira denboran eta amaitu gabe daude; beraz, ordaindu gabe ere bai. Ondorioz, maileguen zenbatekoa Udal Diruzaintzan dago gordeta.

Maileguak Epe Finkoko Inbertsio bezala gauzatzen dira, %3,5eko batez besteko interes-tasan errentagarri eginez, dagozkien ordainketak artatzeko unera bitarte, inbertsioak ziurtatzeko edo gauzatzeko erritmoaren arabera.

Hartara, interes-tasari dagokionean, mailegu horiek ezohiko baldintzetan sinatu zirenez, Getxoko

Udalak ez du uste egokia denik ezerezte aurreratua egitea.

Edonola ere, 2013. urtean, ekitaldiko amortizazioei aurre egingo zaie; hortaz, bankuko zorra 3,3 milioi euro gutxituko da.

Hitz batean, Getxoko Udalaren egoera ekonomikoa guztiz ona da, zorpetzeari dagokionean.

